

EUSKARAREN Berripapera

sumarioa

1

- EBPN

2

- Pertsonaia:
Koldo Zuazo
- Laburrak:
Ebenduak 3,
Euskararen Eguna'
Barakaldoko
Euskaldunen Gida
IKAk 10 urte

3


- Lekeitiko
zinema jaialdia
- HABEren ikastaro eta
bideohitzaldiak

4

- Oskorri eta Urretxu
herria: Iparragirre
- Paco Ibañez, Oroitzen

EUSKARA BIZIBERRITZEKO Plan Nagusia garatzea

DATOZEN URTEOTARAKO LEHENTASUN



1 998ko uztailaren 28an, Gobernu Kontseiluak onartu eta bere egin zuen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, alegia, Hizkuntza Politikarako Sailordetzak Euskararen Aholku Batzordearen lankidetzaz burutu eta urte bereko ekainaren 24an Osoko Bilkuran onarturiko plana.

Aurten, ekainaren 24an, Gasteizko Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura batzordeari aurkeztu zion plan estrategikoa Mari Carmen Garmendiak. Ondoren, planaren argitalpena kaleratu zen.

Legebiltzarrean egindako aurkezpenean Kultura Sailburuak adierazi zuenez, datozen urteotarako Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren lehentasunetako bat izango da Plan Nagusia kudeatzea, hau da, Planaren komunikazioa, jarraipena eta kontrola, eta ebaluazioa egitea. 1999-2002 legealdiko

governua eratzeko izenpeturiko Koalizio Akordioan ezarritakoaren arabera, hizkuntza-politikari dagokionez, helbururik garrantzitsuena Euskara Biziberritzeko Plana garatzea da, adostasun eta partaidetzarik zabalenean oinarritzen den hizkuntza-politikaren ardatza baita.

Planaren zabalkundea egingo da; berariazko aurkezpenak egingo zaizkie zuzenean inplikaturik dauden agente publiko nahiz pribatu guztiei, eta bereziki jakinaraziko zaio bakoitzari zein izango den bere egitekoa, planaren garapena dela eta. Hizkuntza Politikarako Sailordetzak erakunde bakoitzari eskatuko dio Plana garatze aldera gauzatuko dituen neurrien eta ekintzen berri; horrek ekar lezake indarrean dauden hainbat egitarau berrikustea edo jarduera-egitarau berriak abiaraztea.

Plana kudeatzeak Euskararen Aholku Batzordeko Lege-Garapenerako Batzorde-atalaren eta Herri Aginteen Koordinazio Batzordearen lana dinamizatzea eta koordinatzea ekarriko ditu; azken batzorde horretan Eusko Jaurlaritzak, hiru foru-aldundiak eta hiru hiriburuetakoko udalek dute ordezkaritza.

Herri Agintek Koordinatzeko Batzordeak hizkuntzaren normalizazioan erabilitako giza eta diru-baliabideei buruz egindako azterketak argi eta garbi erakusten du behar-beharrezkoa dela EAeko erakundeen arteko koordinazioa areagotzeko ahaleginak egitea; horrela, egun dauden baliabideak hobeto erabili ahal izango dira, bereziki, ondoko gai hauetan: itzulpengintza-politikan; hizkuntza-irizpideak adostean, administrazioek eskaintzen dituzten zerbitzuetan, argitalpenetan, dirulaguntza-deialdietan, erosketa- eta kontratazio-politikan eta langileen etengabeko prestakuntza-politikan; funtzionarioen euskalduntze-alfabetatzean; euskararen sustapenean; eta corpusaren plangintza eta hizkuntzen industrietan.

laburrak

ABENDUAK 3,
Euskararen Eguna

Euskararen Nazioarteko Eguna izango da abenduaren 3a, hau da, San Frantzisko Xabier eguna. Orain dela 50 urte, 1949an, ospatu zen lehenengo aldiz euskararen eguna, Ipar Euskal Herrian eta Ameriketan. Eguna ospatzeko ohitura galduz joan da, baina hainbat kolektibok Eusko Jaurlaritzari eta Euskaltzaindiari egun hori berreskuratzeko eskatu zioten eta bi erakundeek onartu. Horregatik, kultur ekitaldi bat baino gehiago izango da aurreko abenduaren 3an, euskararen egun ofiziala ospatzeko.

Barakaldoko
EUSKALDUNEN GIDA

Sasiburu Elkarteak Sarea-Barakaldoko Euskaldunen Gidaren bigarren edizioa jarri du kalean. Joan den urtean egin izan zuten gidaren jarraipen da eta aurtengoan ere Barakaldon zerbitzua euskaraz eskaintzen duten enpresa, profesional, saltoki eta abar biltzen dira. Hala ere, iazko zenbait datu zuzendu, berriak eskaini eta diseinua hobetu dute. Gidaren helburua da euskararen erabilpena bultzatzea eta Barakaldoko euskaldunei euskaraz mintzatzeko aukerak eskaintzea.

IKAK 10 URTE


IKA euskaltegiek 10. urteurrena betetzen dute aurreko. Sortu eta hamar urtera, Araban bikoiztu egin da ikasle kopurua: 1.200 ikasle izatetik 2.500 izatera igaro dira. Nafarroan 800 ikasle zituen IKAK 1989an eta egun, aldiz, 1.200 ditu. Gainera, toki denetan zentru berriak zabaldu dituzte eta lan handia egin da ikasteko metodoari eta alfabetatze-euskalduntzearen hobetzeari dagokionean, irriti-emanaldiak eta askotariko argitalpenak erabiliz, batik bat.

pertsoneia

KOLDO ZUAZO



ARGIA



1956an Eibarren jaioa, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle da. Argitaratu izan dituen lanetan dira, adibidez, Euskararen batasuna (1988), Burundako hizkera (1994), Arabako euskara (1998), Nafarroako euskal hizkerak (1998), Arabako euskararen kokagunea (1999), eta Arabarrak Euskararen Herrian (1999), aurreko Araba Euskaraz-en jaiaren aitakian kaleratu duen dibulgazio liburua. Lan denetan nabarmenena Euskalkiak gaur (1998) da, dudarik gabe. Bertan, euskalkien ikuspegi eta sailkapen berria egin zuen Koldo Zuazok, bertan Bonaparte Printzeak 1869an egindako mapa zuzenduz eta euskalkien gaur egungo mapa auzetuz.

Aurreko, berriz, iaz egindako mapari zuzenketak erantsi dizkio. Miramarreko Uda Ikastaroetan egin du, Dialektologia ikastaroen barruan.


Euskalkien mapa atera zenetik urte eta erdi joan denean, denbora horretan jaso izandako kritika zentzudunak geureganatzea erabaki du Koldo Zuazok. Gainera,

azken hilabeteetan Deba Arroan jardun du lanean irakasleak, Aramaioetik Mutriku bitarte eta tarteko herri handiak barne -Arrasate, Eibar, Bergara...-, eta inguru horretako hizkera ez zuela behar bezain zuzen erakutsi konturatu zen. "Elgoibar eta Mendaro mendebaldeko euskeran sartu nituen nik, eta orain bi herri horiek eta Mutriku aparte jarri ditut, ez mendebaldeko euskeraren ez gipuzkeraren eremuan, herri horietan egiten den euskarak bietarik duela konturatu bainaiz". Hori izan da aldakuntzarik nabarmenena. Lankideek eragin zizkioten kritiken ondorioz gainera, Ipar Euskal Herriko euskalkien eragina Nafarroa osoan ageri dela jabeturik, mapa berria islatu du egoera.

Orain arteko euskalki mapek bateko eta besteko hizkeren lerro nagusiak seinatu izan dituzte eta, beraz, eginkizunik bada oraindik. "Orain eskualdez eskualde aztertzen joan behar da. Orain arteko mapei aldaketa asko egin behar badizkiegu, horrek esan nahiko du azterketa asko egiten ari garela. Azterketa asko, eta onak, alegia".

Lekeitioko ZINEMA ETA BIDEO JAIALDIA

XXII. Euskal Zinema eta Bideo Bileraren izango da Lekeition abenduaren 3 eta 4an. Jaialdiak euskarazko zinema eta bideogintza sustatzea izan du helburu haste beretik eta, ondorioz, euskarazko lanak bai zik ez dira aurkeztu ahal bertara. Produktuen formatoari dagokionez, 8 eta Super 8-ko pelikulak eta VHSko bideoak onartuko dituzte antolatzaileek. Lanek 30 minutu iraungo dute gehienez eta hala bideo sailean nola 8 eta Super 8koan hainbat arlo banatu dira. Informazio gehiago, ezbb@ibercom.com e-posta helbidean, eta Lekeitioko Bileraren web orrialdean: <http://www.qmz.com/ezbb/>



XXII. Euskal Zinema eta Bideo Bileraren Jaialdia

Lekeitio
1999ko Abenduaren 3 eta 4an

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

HABEren IKASTARO ETA BIDEOHITZALDIAK

Lehengo hilean adierazi genuenez, aurrera ari dira HABEek antolatu izan dituen prestakuntza-ikastaro eta bideohit-zaldiak. Euskara-irakasleentzat antolatu dituzte, bereziki, baina bestelako bigarren hizkuntza baten irakaskuntzan ari direnek ere ikastaroetara joateko aukera dute.

Irailan bertan irakurketa, programazioa, hiztegiaren irakaskuntza, gramatikaren didaktika, eta Atazetan Oinarritutako Irakaskuntza landuko dira. Urrian, berriz, elkar hizketaren inguruko azterketak jorratuko dituzte.

Informazio gehiago nahi izanez gero jo HABEren Lurralde Ikusatzaitzara. (Donostia: 943022600, Bilbo: 940381620, Gasteiz: 945017090).



OSKORRI: Iparragirre

Ipparragirren bertsoen aldia du aurtentzen Oskorrik. Taldeak Urretxuko herriarekin batera kantatu ditu haren hitzak eta Euskal Herriko beste hainbat herriekin batera kantatzeko prest da, "Marijane kanta zan" eta "Pub Ibiltaria"-rekin egin zuen antzera.

"1999. Iparragirre bueltan etxera" du izena jaialdiak eta, ohi denez, aurretik ikerketa sakona egin du Oskorrik Iparragirren lanari buruz. Horren ondorioz, haren 23 kanta biltzen dituen kantutegia eman du argitaratu, hitzak, doinuak eta gaztelaniazko itzulpenak ezarri.

Beraz, "Gitarra zahartxo bat da", "Ume eder bat", "Glu, glu, glu, glu", "Hara nun diran", "Gernikako arbola" eta beste kanta ezagun asko berritzeko sasoia heldu zaigu Oskorreren eskutik.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 80 98
e-posta: M-Meaurio@ej-gv.es

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

e-posta:

OROITZEN

Paco Ibañezek euskara hutsean egin duen diskoa da Oroitzen. Kantariak aita katalana eta ama euskalduna izan zituen eta Valentzian sortu zen 1934an. Gerra Zibilaren ondoren Adunara joan zen, amaren jaioterrira, eta bertako Apakintza baserrian bizi izan zen sei urte zituenetik hamalau urte zituenean Frantziara joan arte.

Hain zuzen, Apakintzako oroitzapenak bilduz osatu du disko hau Paco Ibañezek, hiru kolaboratzaile handiren laguntzaz: Imanol Larzabal, Bernardo Atxaga eta Jorge Oteiza.

